

EAE-KO LANGABEZIA DATUAK. Eustatek emandako datuen arabera, urteko bigarren hiruhilekoan %0,8 murriztu da langabezia tasa EAEn. Bizkaian izan dute jaitsiera handiena, %1,3koa. Halere, tasa handiena bertan dute oraindik.

Langabeziaren tasa Europako Batasuneko batez bestekoaren mailara jaitsi da EAEn, %7,6ra

Sindikatuak ez datoz bat Eustatek emandako datuen balorazioarekin, «inkestaren emaitzek ez baitituzte islatzen prekaritatea eta aldi baterako kontratazioa»

Erredakzioa | DONOSTIA

Eustaten arabera, EAeko langabezia tasa %0,8 murriztu da urteko bigarren hiruhilekoan. Ondorioz, %7,6koa da tasa hori, eta Europako Batasuneko maila berean gelditu da. Euroguneko langabezia tasa, ordea, handiagoa da, %8,3koa.

Eustaten inkestaren arabera, 888.400 ziren maiatzetik ekainera EAeko okupatuak, aurreko hiruhilekoan baino %1 gehiago.

EAeko hiru herrialdeetan egin du behera langabezia tasak. Araba eta Gipuzkoan izandako murrizketa %0,3koa izan da, eta %1,3koa Bizkaian. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko langabezia tasak %6,9koa, %5,9koa eta %8,9koa izan dira, hurrenez hurren. Bizkaian jarraitzen dute, beraz, langabe kopuru handienarekin.

Eustaten arabera, bigarren hiruhilekoan 73.000 izan dira aktibo langabeak, aurreko hiruhilekoan baino 7.600 gutxiago. Bestalde, 888.400 izan dira okupatuak, aurreko hiruhilekoan baino 9.500 gehiago. Horrekin maximo berri bat ezarri da eta duela bost hiruhilekotatik Okupazioak daraman ibilbide gorakorra mantendu egin da.

Sektore guztietan ere gora egin du landunen zenbatekoak. Izan ere, industrian nahiz zerbitzuen sektorean hiru mila langile berri daude, 2.400 eraikuntzan eta 1.100 nekazaritzan.

Okupatuaren zenbatekoa hazi egin denez, okupazio tasa ere hazi egin da. Urteko bigarren hiruhilekoan %62,6koa izan da portzentaia, aurreko hiruhilekoan baino %1 handiagoa.

Dena den, emakumezkoen eta gizonezkoen egoerak oso bestelakoak dira. Inkestaren emaitzek azaltzen dutenaren arabera, emakumezkoen langa-

ESANAK

RAFA IZQUIERDO
(LABeko Ekonomia idazkaria)

«Hamasei eta hogeita lau urte bitarteko gazteek jasaten dituzte enplegu eskasiaren ondorioak»

JOSE ELORRIETA
(ELAko idazkari nagusia)

«Prekaritatea, aldi baterako kontratazioa eta enplegu tasa txikia mehatxu larria dira langileentzat»

JOSE LUIS RUIZ
(CCOOko Komunikazio idazkaria)

«Moteltze ekonomikoa eta enpresek egindako doikuntzen ondorioak aldi baterako langileek jasan dituzte gehien»

bezia tasa %11,5koa da. Gizonezkoen langabezia tasa, ordea, %4,9koa da, beraz emakumezkoen tasak gizonezkoena bikoiztu egiten du.

Bestalde, iazko bigarren hiruhileko datuekin alderatuz, %2,4 jaitsi da langabezia EAEn, %10ekoa baitzen orduan langabezia tasa. Gizonezkoen tasaren murrizketa ia %2koa izan da eta ia %4koa emakumezkoena.

LABek dio langile gazteak direla kaltetuenak

Datuon balorazioa egiterakoan Eustat baino ezkorragoak azaldu dira, ordea, sindikatuak. Rafa Izquierdo LABeko gai ekonomikoetarako idazkariak

Bigarren hiruhileko datuak EAEn

□ Aurreko hiruhilekoarekiko aldea ↑ Balio positiboak
■ Aurreko urteko hiruhilekoarekiko aldea ↓ Balio negatiboak

Aktibitate tasa

%53,6 □ %0,2 ↑
■ %1 ↑

Langabetuen kopurua

%7,6 □ -%0,8 ↓
■ -%2,4 ↓

Sexuaren arabera

GIZONAK %4,9 □ -%0,8 ↓
■ -%1,7 ↓

EMAKUMEAK %11,5 □ -%0,9 ↓
■ -%3,7 ↓

Adinaren arabera

16-24 URTE %17 □ -%4,3 ↓
■ -%7,3 ↓

25-44 URTE %7,8 □ -%0,5 ↓
■ -%2,1 ↓

45-TIK GORA %4,3 □ %0
■ -%1,1 ↓

Herrialdeka

ARABA %6,9 □ -%0,3 ↓
■ -%1,5 ↓

BIZKAIA %8,9 □ -%1,3 ↓
■ -%3,2 ↓

GIPUZKOA %5,9 □ -%0,3 ↓
■ -%1,5 ↓

Okupatutako biztanleria

%62,6 □ %0,9 ↑
■ %3,2 ↑

Sexuaren arabera

GIZONAK %75,8 □ %0,8 ↑
■ %2,2 ↑

EMAKUMEAK %49,2 □ %1 ↑
■ %4,2 ↑

Herrialdeka

ARABA %66,9 □ %0,1 ↑
■ %2,5 ↑

BIZKAIA %59,7 □ %0,9 ↑
■ %3,5 ↑

GIPUZKOA %65,5 □ %1,1 ↑
■ %2,9 ↑

ITURRIA: EUSTAT

esandakoaren arabera, «langabezia tasa murriztu egin bada ere, egoera ez da batere ona». Bere ustez, «Eustatek emandako datuek ez dute benetako egoera erabat islatzen».

Izquierdoren esanetan, hamasei eta hogeita lau urte bitarteko biztanleriaren artean lana dutenen kopura murriztu egin da. «Berrito ere, enplegu eskasiak gazteak astintzen ditu gehien», gaineratu zuen LAB sindikatuko kideak. Bestalde, «bi urte edo gehiago lan bila dabilzanen zenbatekoa hazi egin» dela gogorarazi zuen.

Jose Elorrieta ELA sindikatu-

ko idazkari nagusiak Eustaten emandako datuen inguruan, «benetako arazoak prekaritatea eta aldi baterako kontratazioa» direla salatu du. «Datu estatistikoek egoera hobetu dela azaldu arren; prekaritatea, aldi baterako kontratazioa eta enplegu-tasa mehatxu larriak dira langileentzat», gaineratu du Elorrietak. Azaldutako datuen arabera, EAeko enplegu-tasa Europako batez bestekora ez da iritsi oraindik.

Jose Luis Ruiz CCOO sindikatuko komunikaziorako idazkariak Eustatek emandako datuak ez dituztela «sinesten»

POLEMIKA

Eustat «harrituta» INEren eta bere datuen arteko aldearekin

Eustat Euskal Estatistika Institutua «harrituta» dago 2001ean ekonomiak EAEn izaniko bilakaeraren inguruan INE Espainiako institutuak emaniko datuekin. Esaterako, arrantza eta nekazaritzan %9,1eko hazkundera izan zela diote Eustaten datuek; INErenek, berriz, %3,8koa eman dute. Eraikuntzan, %5eko hazkundera jaso zuen Eustatek; INEk, ostera %0,9ko atzerakada.

Eustaten hitzetan, «beti izan dira desberdintasunak, bi institutuok metodologia desberdinak erabiltzen baitugu, baina horrenbestekorik ez da izan inoiz». INEren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko industria eta eraikuntzarentzat urte txarra izan zen iazkoa, baita sektore publikoarentzat ere. Zerbitzuen eta kontsumoaren ikuspegitik, ostera, urte oso ona izan da. Oso bestelako ondorioak atera daitezke Eustaten datuetatik. Horregatik, INErekin harremanetan jartzeko asmoa erakutsi du Euskal institutuak. Hala ere, gaitzetsi egin ditu «egunotan hainbat iturritatik jaso ditugun partzialitate akusazioak». Eustaten ustez, «ez da manipulaziorik egon» datuak ematerakoan.

LAB sindikatuak ere hitzein du gai honen inguruan. Bere hitzetan, «Eustat eta INEren metodologiak aztertuta, Eustatenak fidagarriagoak dira». Nafarroan kontratesanik ez dela egoten aipatu zuen LABek, «estatistika insitutu propiorik ez dagoelako». Horrek «Euskal Herriko benetako egoeraren inguruko datu fidagarriak lortzea eragozten du» LABen hitzetan, eta Euskal Herriko institutu propio bat aldarrikatu du.

adierazi du. CCOOko ordezkariaren esanetan, «moteltze ekonomikoa eta enpresek egindako doikuntzen ondorioz, aldi baterako langile asko kaleratu egin dituzte».